Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko ekainaren 7a, asteazkena — 109 — Miércoles, a 7 de junio de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## GETARIAKO UDALA

*Getariako goi mailako kirolarientzako diru-laguntzak banatzeko ordenantza.*

Udalbatzak, 2023ko martxoaren 28an eginiko ez-ohiko bilkuran, hasiera batez onartu zuen Getariako goi mailako kirolarientzako diru-laguntzak banatzeko ordenantza, eranskin bezala gehitua.

Hasierako onarpenaren iragarkia udalaren ediktuen taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2023/04/13an, 70. zk., 30 lan egunez jendaurrean jarriz. Jendaurrean jartzeko epea amaituta inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betikoz onartutzat jo da, eta alkateak ahalmena du hori argitaratzeko eta betearazteko.

Ordenantza indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro baita.

Akordio honek bide administratiboa agortzen du, beraz, Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46 artikuluei jarraiki, ados ez dagoenak bi hilabete ditu errekurtsoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean jartzeko.

Getaria, 2023ko maiatzaren 30a.—Haritz Alberdi Arrillaga, alkatea. (4018)

*Getariako goi mailako kirolarientzako diru-laguntzak banatzeko oinarri arautzaileak.*

*1. artikulua. Oinarri arautzaileen xedea.*

Oinarri hauen xedea Getariako bikaintasuneko kirolariei eta behar bereziak dituzten adin-txikiko herritarrei dirulaguntzak ematea da, Getariako Udalaren Aurrekontuetan aurreikusitako kredituen kontura.

Zehatzago esanda, dirulaguntza hauen helburu nagusia hauxe da:

Herriko bikaintasuneko kirolarien jarduera sustatzea, hau da, kirola egiteko eta bikaintasuna lortzeko aukera ematea beren espezialitatean nazioan edo nazioartean nabarmentzeko gai diren kirolariei, baldin eta hasieratik kalitate ona dutela eta kirol-jardueran bereziki aritzen direla egiaztatzen badute.

*2. artikulua. Onuradunak.*

Oinarri hauen bidez arautzen diren laguntzak ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonek eska ditzakete:

a) Getarian erroldatuta izatea.

b) Gutxienez 18 urteroko adina (urte naturalean 18 urte betetzen dituztenak barne).

c) Getarian erroldatuta dauden goi-mailako kirolariek (irizpideetan zehaztutako emaitzen arabera).

## AYUNTAMIENTO DE GETARIA

*Ordenanza de las ayudas para deportistas de alto rendimiento de Getaria.*

El Pleno Municipal en sesión extraordinaria celebrada el día 28 de marzo de 2023, aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora de las ayudas para deportistas de alto rendimiento de Getaria, adjuntado como anexo.

El anuncio de la aprobación inicial fue publicado en el tablón de edictos, en la sede electrónica del Ayuntamiento, y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 70 en fecha 13/04/2023, exponiéndose el expediente por 30 días hábiles. Finalizado el plazo de exposición sin que se haya presentado reclamación o sugerencia alguna, queda definitivamente aprobado, quedando expresamente facultado el Alcalde para su publicación y ejecución.

La entrada en vigor de esta ordenanza se producirá al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por haber transcurrido ya el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley, de 2 de abril, 7/1985 reguladora de las bases del régimen local.

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa de manera que, conforme a las previsiones de los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa podrá ser impugnado directamente ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de 2 meses.

Getaria, a 30 de mayo de 2023.—El alcalde, Haritz Alberdi Arrillaga. (4018)

*Bases reguladoras de las ayudas para deportistas de alto rendimiento de Getaria.*

*Artículo 1. Objeto de las bases reguladoras.*

El objeto de las presentes bases es la concesión de subvenciones a deportistas de excelencia de Getaria y a personas menores de edad con necesidades especiales, con cargo a los créditos previstos en los Presupuestos del Ayuntamiento de Getaria.

El objeto principal de estas subvenciones es, más concretamente:

Fomentar la actividad de las y los deportistas de excelencia en el municipio, es decir, posibilitar la práctica deportiva y el logro de la excelencia a aquellas y aquellos deportistas que sean capaces de destacar nacional o internacionalmente en su especialidad y acrediten desde el principio su buena calidad y su especial dedicación a la práctica deportiva.

*Artículo 2. Beneficiarios.*

Podrán solicitar las ayudas reguladas en las presentes bases las personas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Tener empadronamiento en Getaria.

b) Edad mínima de 18 años (incluidas aquellas que cumplan 18 años en el año natural).

c) Ser deportista de alto nivel censados/as en Getaria según resultados detallados en los criterios.

EK\CV GAO-I-2023-04018

*3. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea, modua eta agiriak.*

Dirulaguntza eskariak Getariako Udaleko erregistro elektronikoan aurkeztuko dira laguntza bakoitzaren urteko deialdietan zehaztutako epeetan.

Deialdiak kontrakoa esaten ez badu, 20 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira eskaerak. Epearen amaierako eguna igandea edo egun baliogabea balitz, hurrengo egun balioduna izango da epe horren amaierako eguna.

Egiaztatzen bada aurkeztutako dokumentazioa ez dagoela osorik edo dokumentazio horrek ez dituela betetzen oinarri hauetan adierazitako baldintzak, pertsona interesdunari eskatuko zaio akats formalak 5 eguneko epean konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko. Adieraziko zaio, hori egiten ez badu, ezetsitzat joko dela bere eskaera, eta hura artxibatuko dela, bestelako tramiterik egin gabe, indarreko araubideak adierazten duen moduan.

Aurkeztu beharreko agiriak:

— Eskabide-orri normalizatua.

— Eskatzailearen NANaren fotokopia.

— Gastuen eta diru-sarreren balantzea, eskatzaileak sinatuta.

— Gastu guztien jatorrizko egiaztagiriak (fakturak) eta bakoitzari dagokion transferentzia-agiria.

— Getariak udaleko zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekin egunean dituela egiaztatzen duen agiria edo bere guraso edo tutore legala.

— Zinpeko aitorpena, dirulaguntza jasotzeko debekuetan ez dagoela.

— Kirol emaitzak.

— Dagokion federazioan alta ematearen fitxa edo ziurtagiria.

*4. artikulua. Prozedura eta erabakia.*

Instrukzio-arduraduna izango da ebazpen-proposamena egingo duena.

Erabakia hartzeko eskumena alkatetzak du. Guztia gehienez hilabeteko epean egin beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Aipatutako epea igaro eta gero, Getariak Udalak eskabideren bati buruzko erabaki zehatzik hartu gabe izango balu, erantzuna ezezkoa dela esan nahiko du horrek.

*5. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta hura ordaintzeko modua.*

— Zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbateko osoak ezingo du izan, inoiz ere, bera bakarrik edo beste herri-administrazio eta erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzekin batuta, onuradunak egin behar duen jardueraren kostuarena baino handiagoa.

Bikaintasuneko kirolarien curriculumaren balioespenean lortutako puntuazioa kalkulatuko da, puntuazio erlazio bat ezarriko da eskuragarri dagoen aurrekontuaren arabera.

Azkenik kirolari bakoitzak lortutako puntuekin laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da.

Kirolari batek ezingo du guztizko laguntzaren % 40 baino gehiago jaso. Kasuren batean hori gertatuz gero, kopuru hori kendu eta puntuazio erlazioa berriz egingo da gainerako kirolarientzat.

— Ordainketa.

Dirulaguntzaren justifikazioa eskariarekin batera aurkeztuko da.

*Artículo 3. Plazo, forma y documentación para la presentación de solicitudes.*

Las solicitudes de subvención se presentarán en el registro electrónico del Ayuntamiento de Getaria en los plazos establecidos en las convocatorias anuales de cada ayuda.

Salvo que la convocatoria disponga lo contrario, las solicitudes deberán presentarse en el plazo de 20 días naturales. Si el día de fin de plazo fuera domingo o inhábil, la fecha de fin de plazo será la del día hábil siguiente.

Si se comprueba que la documentación presentada no está completa o que la misma no reúne los requisitos señalados en las presentes bases, se requerirá a la persona interesada para que subsane los defectos formales en el plazo de 5 días o acompañe los documentos preceptivos. Se le indicará que, de no hacerlo, se entenderá desestimada su solicitud y se procederá al archivo de esta sin más trámite, tal y como indica la normativa vigente.

Documentación para presentar:

— Impreso de solicitud normalizado.

— Fotocopia del DNI del solicitante.

— Balance de gastos e ingresos firmado por el solicitante.

— Justificantes originales de todos los gastos (facturas) y el correspondiente documento de transferencia.

— Documento acreditativo de que Getaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias municipales y de seguridad social o sus padres o tutores legales.

— Declaración jurada de no estar incurso/a en prohibición de obtener subvención.

— Resultados deportivos.

— Ficha o certificado de alta en la federación correspondiente.

*Artículo 4. Procedimiento y resolución.*

La propuesta de resolución será formulada por el instructor o instructora.

La competencia para adoptar la decisión corresponde a la alcaldía. Todo ello en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente a la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Transcurrido dicho plazo, si Getaria no hubiera adoptado una decisión concreta sobre alguna de las solicitudes, se entenderá que la respuesta es negativa.

*Artículo 5. Cuantía de la subvención y forma de pago.*

— Importe.

En ningún caso el importe total de la subvención podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

Se calculará la puntuación obtenida en la valoración curricular de los y las deportistas de excelencia, se establecerá una relación de puntuación en función del presupuesto disponible.

Finalmente, con los puntos obtenidos por cada deportista se determinará la cuantía de la ayuda.

Un deportista no podrá recibir más del 40 % de la ayuda total. Si en algún caso esto ocurre, se restará esa cantidad y se volverá a hacer la relación de puntuación para el resto de deportistas.

— Pago.

La justificación de la subvención se presentará junto con la solicitud.

EK\CV GAO-I-2023-04018

Ordaintzeko modua bakarra izango da, behin dokumentazioa egiaztatu eta aztertu ondoren. Banku-transferentzia bidez egingo da dirulaguntzen ordainketa, eta kontuak eskatzailearen izenean egon beharko du.

Eman daitekeen dirulaguntzaren kopuruak ezin du gainditu, beste diru-sarrerak eta dirulaguntzak kontuan hartuta, benetan egindako gastua.

Benetan egindako gastua da egoki justifikatu direnak dirulaguntza honen eskaeran (fakturak, transferentzia-agiriak...).

*6. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira diruz laguntzen diren jarduerak egiteko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira. Alderdi horri dagokionez, beti izango da betetzeko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua (azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

Onartuko diren gastuak, deialdia egiten den urte naturalaren epealdian egin beharko dira eta ordainduta egon beharko dute epealdi berdinean.

*7. artikulua. Publizitatea.*

Oinarri hauen baitan emandako dirulaguntzen onuradun diren pertsonek behar bezala iragarri behar dute, euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz, beren ekitaldi eta agerraldi publikoetan Getariako Udalaren dirulaguntza jaso duela.

*8. artikulua. Eskaerak baloratu eta laguntzak nori eman hautatzeko irizpideak.*

Emaitzen araberako puntuazioa lortuko da, horrela banaturik:

La forma de pago será única, una vez comprobada y analizada la documentación. El pago de las subvenciones se realizará mediante transferencia bancaria y la cuenta deberá estar a nombre del solicitante.

El importe de la subvención subvencionable no podrá superar el gasto efectivamente realizado en relación con otros ingresos y subvenciones.

Es gasto efectivamente realizado el que ha sido debidamente justificado en la solicitud (facturas, documentos de transferencia).

*Artículo 6. Gastos subvencionables.*

Son gastos subvencionables los que deban realizarse para la realización de las actividades subvencionables, siempre que se realicen en el plazo establecido en las presentes bases. En este aspecto, siempre será de aplicación el artículo 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Los gastos que se aprueben deberán realizarse durante el período del año natural de la convocatoria y deberán estar abonados durante el mismo periodo.

*Artículo 7. Publicidad.*

Las personas beneficiarias de las subvenciones concedidas en el marco de estas bases deberán anunciar debidamente, en euskera o en euskera y castellano, que han recibido subvención del Ayuntamiento de Getaria en sus actos y comparecencias públicas.

*Artículo 8. Criterios de valoración y concesión de las ayudas.*

Se obtendrá una puntuación en función del resultado obtenido:

| 1. GOI MAILAKO KIROLARIEI DIRU LAGUNTZA EMATEKO BALORAZIO IRIZPIDEAK<br>1. CRITERIOS DE VALORACIÓN PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A DEPORTISTAS DE ALTO NIVEL | | |
|---|---|---|
| MAILA ABSOLUTUAN / CATEGORÍA ABSOLUTA | | |
| Europako edo munduko emakumezkoen txapelketan lortutako emaitza, maila absolutuan<br>Resultado obtenido en el Campeonato de Europa o del Mundo absoluto femenino | 1etik 3era / 1 al 3 | 18 |
| | 4tik 15era / 4 al 15 | 10 |
| Europako edo munduko gizonezkoen txapelketan lortutako emaitza, maila absolutuan<br>Resultado obtenido en el Campeonato de Europa o del Mundo absoluto masculino | 1etik 3era / 1 al 3 | 13 |
| | 4tik 15era / 4 al 15 | 8 |
| Estatuko-Espainiako emakumezkoen txapelketa, maila nagusian<br>Campeonato Estatal-España absoluto femenino | 1 | 6 |
| | 2 | 3 |
| Estatuko-Espainiako gizonezkoen txapelketa, maila nagusian<br>Campeonato Estatal-España absoluto masculino | 1 | 6 |
| | 2 | 3 |
| MAILA ABSOLUTUTIK BEHERA / INFERIOR A CATEGORÍA ABSOLUTA | | |
| Maila absolututik beherako hurrengo mailako Europako edo munduko emakumezkoen txapelketa<br>Campeonato de Europa o del Mundo de la categoría imediatamente inferior a la absoluta feminina | 1etik 3era / 1 al 3 | 20 |
| | 4tik 15era / 4 al 15 | 12 |
| Maila absolututik beherako hurrengo mailako Europako edo munduko gizonezkoen txapelketa<br>Campeonato de Europa o del Mundo de la categoría imediatamente inferior a la absoluta masculina | 1etik 3era / 1 al 3 | 15 |
| | 4tik 15era / 4 al 15 | 10 |
| Maila absolututik beherako hurrengo mailako Estatuko-Espainiako emakumezkoen txapelketa<br>Campeonato Estatal-España absoluto femenino de la categoría inmediatamente inferior a la absoluta | 1 | 8 |
| | 2 | 5 |
| Maila absolututik beherako hurrengo mailako Estatuko-Espainiako gizonezkoen txapelketa<br>Campeonato Estatal-España absoluto masculino de la categoría inmediatamente inferior a la absoluta | 1 | 8 |
| | 2 | 5 |

EK\CV GAO-I-2023-04018

| 2. ADIN TARTEAK (deialdiaren urte naturalean)<br>2. TRAMOS DE EDAD (año natural de la convocatoria) | | |
|---|---|---|
| 12-13 urte/años | | 12 |
| 14-15 urte/años | | 10 |
| 16-17 urte/años | | 8 |
| 18-19 urte/años | | 6 |
| 20-22 urte/años | | 4 |
| 23 urte baino gehiago/años o más | | 2 |
| Gehienezko puntuazioa / Puntuación máxima | | 12 |
| 3. KONPETIZIO MOTA<br>3. TIPO DE COMPETICIÓN | | |
| Emakumeen lehiaketetan parte hartzen badu / Si participa en campeonatos femeninos | | 4 |
| Gizonezkoen lehiaketetan parte hartzen badu / Si participa en campeonatos masculinos | | 2 |
| Gehienezko puntuazioa / Puntuación máxima | | 4 |

Kirolari bakoitzak goiko taularekin lortutako puntuekin laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, eskuragarri dagoen aurrekontuaren arabera.

*9. artikulua. Araubidea.*

Araudi honek aurreikusi gabeko alderdi guztietan, betetzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra (azaroaren 18an argitaratua *Estatuko Aldizkari Ofizialean*), lege horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 errege-dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25ean argitaratua *Estatuko Aldizkari Ofizialean*), Getariako Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzaile Orokorra.

*10. artikulua. Ez betetzea, itzultzeko prozedura eta zigortzeko prozedura.*

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta hura garatzeko Arautegiaren baitan aurreikusitako inguruabarrik gertatuz gero, jasotako kopuruak itzultzea eskatu ahal izango da, bai eta beka ordaindu zenetik itzultzeko data adostu arte luzatzegatiko interesak ere. Itzultzeko prozedura goian aipatutako Diru laguntza Legeak eta hura garatzeko Arautegiak ezarritakoaren arabera gauzatuko da.

Halaber, administrazioaren arau haustetzat hartzen dira 38/2003 Diru-laguntzen gaietan sailkatutako egintzak zein ez egintzak, eta aipatutako legean eta hura garatzeko arautegian arautitako prozeduraren arabera zigortu ahal izango dira, baita laxokeria hustzat ere.

Sexu-bereizkeria dela-eta bazterkeria egiteagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, zigorrak ezartzen duen epean. Ezin izango dute parte hartu, orobat, Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki debeku horrekin zehatutakoek.

*11. artikulua. Helegiteak.*

Oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa sar daiteke deialdia onartu duen organoan, hilabete baino lehen, edo zuzenean Administrazioarekiko Auzitegien Epaitegira jo eta han sartu helegitea, bi hilabete baino lehen. Oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira bi epe horiek.

Siguiendo esta tabla, con los puntos obtenidos por cada deportista se determinará la cuantía de la ayuda, el cual se establecerá en función del presupuesto disponible.

*Artículo 9. Régimen.*

En todo lo no previsto en esta ordenanza, será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (publicada en el *Boletín Oficial del Estado* el 18 de noviembre), su Reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (publicado en el *Boletín Oficial del Estado* el 25 de julio), Ordenanza General Reguladora para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Getaria.

*Artículo 10. Incumplimiento, procedimiento de devolución y sancionador.*

En caso de concurrir alguna de las circunstancias previstas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como en la normativa de desarrollo de la misma, se podrá exigir la devolución de las cantidades recibidas y de los intereses de demora que correspondan desde el momento en que se abonó la beca hasta el acuerdo de la fecha de devolución. El procedimiento de devolución se llevará a cabo según lo dispuesto en la Ley de Subvenciones y la Normativa de desarrollo mencionados anteriormente.

Asimismo, se considerarán infracciones de la Administración los actos y omisiones clasificados en los apartados de subvenciones de la Ley 38/2003 de Subvenciones, y podrán ser objeto de castigo según lo regulado en la mencionada Ley y la Normativa de desarrollo de la misma, incluso como simple negligencia.

No podrán concurrir a la convocatoria de las ayudas reguladas en esta orden las personas sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni las incursas en prohibición legal que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Artículo 11. Recursos.*

Contra estas bases se podrá presentar recurso de reposición ante el órgano con capacidad de aprobar la convocatoria en el plazo de un mes, o bien se podrán recurrir las mismas directamente, en el plazo de dos meses, ante el Tribunal de lo Contencioso-Administrativo. En ambos casos, los plazos se contarán a partir del día siguiente al de la publicación de estas bases.

EK\CV GAO-I-2023-04018

*12. artikulua. Araubide juridikoa.*

Oinarri hauetan arautu gabekoei, lege eta arautegi hauek ezarriko zaizkie:

— 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura.

— 38/2003 Legea, diru-laguntzei buruzkoa, eta 887/2006 Errege dekretua, lege horren arautegia onartzen duena.

*13. artikulua. Indarrean sartzea.*

Oinarri hauek indarrean sartuko dira Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

*Artículo 12. Régimen jurídico.*

En todo lo no previsto en estas bases, se aplicarán las siguientes leyes y reglamentos:

— Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— Ley 38/2003 General de Subvenciones y Real Decreto 887/2006, por el que se aprueba el Reglamento de dicha Ley.

*Artículo 13. Entrada en vigor.*

Las presentes bases entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2023-04018